

## Deialdiaren xedea

Beren tituluari lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak euskal enpresek praktiketara kontratatuzeko bideratutako laguntzak arautzea.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bulegoetan edo zentro laguntzaileetan aurkeztuko dituzte enpresek hautatu beharreko gazteen profila zehazten duen lan-eskaintza eskabidea. Eskaintza bat kudeatu ondoren hautagai gisa bideratu diren pertsonen egindako kontratuak baino ez dira diruz lagunduko.

Interesdunek egin behar dutena da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan inskribatuta egon eta datuak eguneratuta eduki. Hortik aurrera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak edo zentro laguntzaileek enpresetara igorriko dituzte lan-eskaintzetan haiek ezarritako baldintzak betetzen dituzten hautagaien zerrendak.

# Kontratatutako pertsonen bete beharreko baldintzak

- a) 16 urtetik gorakoak eta 30 urtetik beherakoak izatea.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea.
- b) Langabea izatea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzailer gisa izena emanda egotea.
- c) Identifikatuta egotea Gazte Bermearen Sistemaren datu-basean, eta aurrez egiaztatu izana beteta dauzkaten sistema horretara sartzeko baldintzak. 25 URTETIK BEHERAKOAK.(EHAA 2014/10/27, 2014ko urriaren 24ko Ebazpenaren arabera hautaketa prozeduran lehentasuna izango dute).
- d) Praktikaldiko kontratua hasi aurreko 30 egun naturaletan lan egin ez izana. (EHAA 2014/10/27 ,2014ko urriaren 24ko Ebazpenaren arabera egiaztatu beharko da).
- e) Ondoko taldeotan sartutako titulazioetako bat edukitzea:

## 1. taldea

- Lizentziatua edo unibertsitateko gradua, ingeniaria, arkitektoa.
- Unibertsitateko diplomatua, ingeniari teknikoa, arkitekto teknikoa.

## 2. taldea

- Araututako lanbide heziketako edo berriarazko lanbide heziketako goi- edo erdi-mailako teknikaria. Honako bi tituluak ere aurrekoen baliokideak dira: teknikari laguntzailea (LH1) eta teknikari espezialista (LH2).
- Ofizialki, aurrekoen baliokidetzat hartutako beste titulazio batzuk.
- Profesionaltasun-ziurtagiria.